


Indian Murgil zaitez Adivasiekin





Indian Murgil zaitez Adivasiekin

1go PANELA

Erakusketa honen helburua zuk India hobeto ezagutzea da. Hedadudari dagokionez munduan 7.a da eta biztanleen aldetik 2.a (milla milloi biztanle batz bestea).

Erakusketa honek ez du nahi herri honen erabateko ikuspuntu bat ematea, zuk Adivasiak hobeto ezagutzea baizik. Indiako lehenengo Biztanle indigenak (gaur egun 100 milioi) eta beraien bizitzeko era.



Erakusketa honek "Putzuen eraikuntza bederatzi herrirka adivasirentzat Gujateran. India" proiektuan ikasi duguna azaldu nahi du. Putzua da esperientzia honen adierazgarri. Zergatik?

1. Proiektua putzuen eraikuntzan datzalako.
2. Juan eta Elisak egindako lana putzuen uraren azterketa izan zelako.
3. Lankidetzat putzu bat bezalako delako: ura, poza eta alaitasuna ematen digu. Denon beharra eta eginkizuna da.

Erakusketa honen oinarria JESÚS OBREROREN talde batek egindako lan bat da, batzuk 1999.eko abuztuan Indian egon ziren. ALBOAN ONGaren proiektu batean elkarlanean.

Proiektu honetan jartzen duzun arreta eskertzen dizugu eta hemendik aurrera guretzat lagun bat eta kolaboratzaile bat zara.

Erakutsi zure interesa panelak arretaz irakurri, argazkiak ikusiz, xehetasunak kontuan hartuz, galderak erantzunez eta proposatutako eginkizunak egin. Baina garrantzitsuena zera da: Zer sentitzen duzu zure baitan Indian murgilduz eta Adivasiekin lan eginez?: zeintzuk dira gure arteko ezberdintasunak?: eta berdintasunak?: zergaitik?



2. PANELA

Adivasi familia

Beste herri guztien bezala, Adivasientzat familia garrantzi handiko balore bat da. Baina, era berean gure familiak eta Adivasiak oso desberdinak dira. Esate baterako haiek seme-alaba asko dituzte, errespetu handia diote agurei eta amek etxean eta soroetan egiten dituzte lan gogorrenak.

Baina, guretzat nola ezkontzen diren da bitxieta. Oso gazteak direnean ezkontzen dira. Sistema korapilotsua eta guretzat zaharkitua da. Bien gurasoak ados jartzen dira. Emaztegiaren gurasoek senargaiaren gurasoei dote bat eman behar diete (diruarekin edo bufala batekin ordainketa gisa).



Eginkizuna

- Zenbat zarete zure familian?
- Zenbat urterekin ezkondu ziren zure gurasoak? Nola ezagutu zuten elkar?
- India eta Euskadiko jaiotze indizeak konparatu. Zergaitik honenbesteko ezberdintasuna?
- Zer deritzozu doteari? Han eta hemengo doteaz informatu.



3. PANELA

Adivasi Herriska

“ADIVASI”k “gizatiarra” edo “ohianaren biztanlea” esan nahi du. Indiako lehenengo biztaleak izan ziren. Gaur egun haien antzinako legeak, sinesmenak, ohiturak eta kultura mantentzen dituzte.

Betidanik soroetan bizi dira eta gaur egun nekazaritzatik bizi dira. Lohiz, bambuz edo bufalaren gorotzez egindako etxeetan bizi dira. Herriska txikietan edo ohianetan sakanatutako etxeetan bizi dira.

Antzinean arrantza edota heizatik bizi ziren , baina gaur egun aukera hori desagertu egin da. Nekazaritzak ez die uzten duintasunez bizitzen. Ondorioz, asko hirietara emigratzera behartuta daude. Hor oso gutxi irabazten dute.

Esan behar da soroak eta uztak hobetzeko ureztaketaren putzuak izango balituzte, bizi-modua hobea izango luketela. Gainera, eskolak, anbulatorioak eta ospitaleak ere behar dituzte. Milurteko berrian haiek ere duintasunez bizitzeko eskubide osoa dute.





4. PANELA

Adivasiak ohinaren biztanleak

Adivasiak arazo material asko dituzte, baina baloren aldetik oso aberatsak dira. Alaiak eta lagunkoia dira, langile finak (emakumeak batez ere) ere bai. Natura (espirituak topatzen dituzte harengan) baloratzen dute. Antzinako folklorea mantentzen dute. Folklore horretan oso politak diren dantzak nabarmentzen dira.

Indiako gizarte sisteman kastak edo leinuak dira nagusi. (Kastak talde edo klase sozialak dira. Oso hierarkizatuak daude eta guretzat ulergaitzak dira). Adivasiak sistema horretatik kanpo daude. Hala ere, Indiako talderik behartsuenetakoa da.





5. PANELA

Adivasiak Dediapadan, Gujeraten, Indian



Herri honen aberastasun natural eta kulturala izugarria bada ere, munduan txiro gehien duenatarikoa da. Mila miloi biztanle baino gehiago dauka, haue-tatik asko pobreak direla-rik. Giza Garapen Indizea-ri dagokionez, 132. pos-tuan dago, 174 herrialde artean. Gizon eta emakumezkoen arteko ezer-dintasuna alfabetizazioa-ren portzentaian somatzen da: 100 gizon alfabetatu-

tatik, 59 emakume alfabetatu-taude. Hala ere, helduen %53'5ak beste-rik ez daki irakurtzen.

Klimak eragin handia dauka nekazaritzan, eta aipatzekoak dira monzoiak. Zortzi hilabetetan beroa eta lehortasuna dira nagusi, eta uda partean eurijesak ugariak dira. Arroza hazten da gehienbat.

Ikatza eta burdina dira meatz baliabiderik garrantzizkoenak, petroleo apur bat izanda ere. Indiak kanpoan saltzen dituen produktuak hauexek dira: harribitxiak, altzairuak, tea, burdina, etab.

Indiako biztanlegoa hamaika kultur eta talde etnikok osatuta dago, adivasiak tartean. Adivasiak populazioaren %10a dira.

Ekintza

Ekura ezazu Indiari buruzko informazioa. Bere hedadura eta populazioa Euskadirekin alderatu. Euskadi bezain handia diren zenbat lurralde sartzen dira Indian? Zer gertatuko litzateke Indiako biztanle guztiek guk adina paper erabiliko balute?



Herrien arteko lankidetzaz

6. PANELA

Herrien egoera ekonomikoa oso desorekatua dago eta hori ez da zuzena. Hemen duzun grafikoan azaltzen denez, populazioaren %80ak aberastasunaren %20a daukan bitartean, aberatsagoa den %20ak (gu tartean) aberastasunaren %80a jaten dugu. Horregatik, zuzentasunak herrien arteko lankidetzaz eskatzen du.

Izan ere, lankidetzaz sortzen da erantzun bezala injustiziaren aurrean. Denok dugu leku egoki batean bizitzeko eskubidea. Horregatik, lankidetzaz da herri askotako jende eta taldeekin lan egitea, bere alboan egotea eguneroko ekintzetan lagunduz.

Gure lankidetzaz da ur ttantta bat bezalakoa: beste jendeak ekartzen duen ttanttarekin elkartuta, indarra hartzen du eta gizartea aldatzeko gai da.

Elkarlan honetan denok aberasten gara, denok hartu eta denok ematen dugu. Horrelaxe mundu duinago baten alde egiten dugu lan, eta gure ur ttantta justizia eta elkar-tasun itxasoan nahasten da.





7. PANELA

Lankidetzaren gurpila

Aurrean azaldu dugun lankidetzaren atzetik jende eta talde zehatzak daude. Gure kasuan, irakasle batzorde batek hasi zuen esperientzia. Bere ezagupena Indiako jendearekin elkarbanatu nahi izan zuten irakasle eta ikasle batzuk.

Alboan-en bitartez, talde adivasi batekin topo egin zuten. Elisa, Clara eta Juan bidaiatu ziren Dediapadara, eta hango adivasiekin batera ingurugiroari buruzko txosten bat egin zuten, uraren kalitatea aztertuz.

Lan hori egiteaz gain, Juan, Elisa eta Clara ilusioz beterik itzuli ziren, lagun asko aurkituta, eta bere esperientzia kontatzeko grinaz.

Dediapadako adivasiek ere lagun berriak dituzte, eta ingurugiroa zaintzeko proiektuetan tinko jarraitzen dute.

Beste erakunde askok ere parte hartu dute proiektu honetan: Jesus Obrero Ikastetxea, Alboan, Gasteizko Udala, Vital Kutxa, Dediapada Social Service, etab. Horiei esker esperientzia bidegarria izan da.

Ikusten duzuen bezala, lankidetzan den-denok dugu zer egin eta zer eman.





8. PANELA

Adivasiak eta gu



Badakizu nortzuk diren proiektu honen protagonistak? Gu gara? Adivasiak dira? India osoa da?

Agian, topaketa honetan denak dira protagonistak. Agian, elementu nagusiak dira elkarlana, Adivasien gerokoa, gurea ere bai eta hori lortzeko denok egin dugun ametsa.

Entzun topaketa honen protagonisten esana eta gero denok batera aterako ditugu ondorioak.

ALBOAN-ekoek: Guretzat Gasteizko jendea eta Adivasiak elkar ezagutzea eta guk horretan parte hartzea oso esperientzi interesgarria izan da.

ELISA-k: Jesús Obreron ikasten dut. Uda honetan nire bizitzako esperientzarik interesgarriena izan dut. Bi hilabetetan (besterik ez) giza baloreei buruz nire bizitza osoan baino askoz gehiago ikasi dut.

SEKILA-k (Nivaldako Adivasien taldea): Beste herri batzuetako jendea gure herrira etortzea eta elkar ezagutzea maite dugu. Gustora gaude haiekin.

BERECHI-k (elkarkidea): orain Elisa, Clara eta Juanen konpromezua da ezagutu dutena besteei kontatzea.



9. PANELA

gu eta Adivasiak

Topaketa honen beste fruituak

Han: Dediapadako ingurugiro eta egoera sozioekonomikoari buruzko txostena.

Hemen: topaketa honi buruzko ekintza hezgarriak programatu dira, Jesus Obrero eta beste ikastetxeentzako.

Han: Adivasiaren elkarteek osatutako lan talde bat (Juan eta Elisak parte hartu zuten talde honetan).

Han: 30 putzu baino gehiagoren uraren azterketa

Hemen: Materiala, ideiak, bizitza eta lankidetzari zentzu berri bat emateko aukera eta lan talde bat.

Hemen: Adivasiaren errealitatea ezagutarazteko erakusketa baten antolakuntza.

Argiago ikusten duzu orain protagonistak zeintzuk diren?

Pentsa dezagun elkarrekin

- Juan, Clara eta Elisa itzuli dira Indiatik, baina, hori al da amaiera?
- Zein ondorio ateratzen duzu proiektu honetatik?
- Zure ustez, nork irabazi du gehien, adivasiak ala guk?
- Zure ustez, erakusketa hau ikusita, adivasiak, Elisa, Clara eta Juan pozik sentituko dira? Zergatik?





10. PANELA

Aurrera jarrai dezakegu



Puntu honetara iritsita, zure buruari galdetuko diozu, guzti hau ondo dago, baina zer egin dezaket nik? Non eta nola?

Hona hemen gure erantzuna: lehenengo eta behin, pentsatzen den baino gauza gehiago egin dezakegu, bai gure eguneroko bizitzan, bai gauden taldeetan.

Errezeta honen osagaiak hauek dira:

Zuzenak ez diren egoerak aldatzeko gogoaren 2 goilarakada.

Sormen apur bat

Tinkotasun lau koxkortxo.

Lan taldea osatzeko pertsona batzuk.

Guzti hori, beste erralitateekin eta perstsonekin harreman jar zaitzakeen Gobernuz Kanpoko Erakunde batekin ongi nahastuta

Eta zure denboraren zati bat eman.

Iradokizun gehiago, jakina!



Erosterakoan:

- Informa zaitetz erositakoa nondik datorren, eta nola dago egina.
- Bidezko merkataritzako dendak ezagutu, eta ikusiko duzu zenbat gauza (opariak, janariak, eskolako tresnak, etab.) duzun eskura.
- Benetan beharrezkoa bakarrik erosi.
- Gogora ezazu plastikoak asko kutsatzen duela, eta papera erreziklatu daitekeela. Tela edo paperezko poltsak erabili, eta plastikozkoak bererabili.
- Marka batzuren aurkako boikotak ere ezagut ditzakezu. Boikotak egiten dira, enpresa batzuk langileak edo ingurugiroa errespetatzen ez dituztelako.

Adi egon...

- Zure hirian hitzaldi, erakusketa, antzerki eta bestelako ekintzak antolatzen dira, eta herri askoren informazioa lortu ahal duzu.
- Eskatu zure irakasleei munduko gaurko arazoetaz hitz egin dezaten.
- Gauza hautaz hitz egin zure lagunekin: ideia asko bururatuko zaizkizue.
- Etxean ere gai honetaz mintzo zaitetzke.

Ez zaude bakarrik, bat egin dezakezu besteekin.

- Zure auzoan, hirian edo ikastetxean talderen bat egongo da: hurbildu, ezagutu eta parte hartu.
- Zure aurrezpen %0'7a eman dezakezu garapen proiektu batzurentzako. Zure familiak, ikastetxeak eta Udalak ere eman dezakete.
- Etorkinak lagundu eta bere eskariak sustatu.
- Gai hauei buruzko eskutitzak bidali egunkarietara.
- Manifestaldi eta kanpainetan parte hartu.
- Zuk ere proposamen asko egin dezakezu. Zer bururatzen zaizu?

Orain zure txanda da